




EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA





1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du lurralde guztietan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; urtetik urterako datuei erreparatuz gero, gora egin du EAEn, batez ere Bizkaian izan den gorakadak eraginda.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2019ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 821 lizentzia eman zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalek. Emaiza horiek 2019ko bigarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino nabarmen txikiagoak dira, 50 lizentzia gutxiago eman baitira, hau da, % 5,7ko beherakada izan da termino erlatiboetan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak gora egin du: 53 lizentzia gehiago onartu dira, hau da, % 6,9 gehiago.

Bizkaian, hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 53,5 eman dira, 439 lizentzia guztira. Araban, berriz, 201 lizentzia eman dira, guztien % 24,5. Gainerako 181 lizentziak, guztizkoaren % 22,0, Gipuzkoari dagozkio.

Neurri handiagoan edo txikiagoan, EAeko lurralde guztietan jaitsi da obra handiko lizentzien kopurua 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean. Bizkaian, beherakada handiena izan duen lurraldean, artatutako lizentzien kopuruak % 7 egin du behera erreferentziako aldirian (33 lizentzia gutxiago). Arabak eta Gipuzkoak jaitsiera arinagoa izan dute: Araban 7 lizentzia gutxiago eman dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, % 3,4 gutxiago, eta Gipuzkoan lizentzien kopuruak % 5,2 egin du behera (10 lizentzia gutxiago).

Emandako lizentzien urte arteko emaitzei dagokienez, Bizkaian soilik eman dira emaitza positiboak, oro har. Araban, 16 lizentzia gutxiago eman dira 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, % 7,4 gutxiago. Gipuzkoan, urte arteko jaitsiera 19 lizentziakoa izan da, eta aldi horretan % 9,5eko jaitsiera erlatiboa izan du. Bizkaian, 88 lizentzia gehiago eman dira, kopuru absolutuetan; hau da, % 25,1 gehiago, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

2019ko hirugarren hiruhilekoan emandako lizentzien % 84,2 birgaitze-obrei lotuta daude.

2019ko hirugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** arabera banaketan aurreko hiruhilekoetan ikusitako joerari eutsi zaio, eta argi eta garbi nagusitu dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehazki, erreferentziazko hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 84,2 dira, lizentzien % 14,3 oin berriko eraikinetarako izango lirateke (2019ko bigarren hiruhilekoko % 12,1 baino zertxobait gehiago) eta % 1,6 eraispenetarako. Kopuru absolutuetan, birgaitzeko 691 lizentzia eman dira (2019ko bigarren hiruhilekoan baino 62 gutxiago, % 8,2 gutxiago), 117 oin berriak egiteko (12 lizentzia gehiago, % 11,4 gehiago) eta 13 eraisteko, aurreko hiruhilekoan emandako baldintza berberetan.



2019ko hirugarren hiruhilekoan ere, oinplano berriko lizentzien eta birgaitze-lizentzien zatiak ñabardura txiki batzuk ditu, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Gipuzkoan, oin berriak pisu erlatibo handiagoa du: Araban emandako obra handiko lizentzien % 19,3; Bizkaian, berriz, % 10,3. Birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez: Bizkaian birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 88,6 dira, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, proportzioa % 79ra iristen da.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2019ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	821	100,0	-50	-5,7	53	6,9
	Oinplano berria	117	14,3	12	11,4	11	10,4
	Birgaitzea	691	84,2	-62	-8,2	47	7,3
	Eraispena	13	1,6	0	0,0	-5	-27,8
Araba	Guztira	201	100,0	-7	-3,4	-16	-7,4
	Oinplano berria	37	18,4	4	12,1	-2	-5,1
	Birgaitzea	159	79,1	-12	-7,0	-15	-8,6
	Eraispena	5	2,5	1	25,0	1	25,0
Bizkaia	Guztira	439	100,0	-33	-7,0	88	25,1
	Oinplano berria	45	10,3	0	0,0	2	4,7
	Birgaitzea	389	88,6	-31	-7,4	89	29,7
	Eraispena	5	1,1	-2	-	-3	-37,5
Gipuzkoa	Guztira	181	100,0	-10	-5,2	-19	-9,5
	Oinplano berria	35	19,3	8	29,6	11	45,8
	Birgaitzea	143	79,0	-19	-11,7	-27	-15,9
	Eraispena	3	1,7	1	50,0	-3	-50,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa



2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren arteko aldian, oinplano berriko lizentzien gorakada txiki bat hauteman da Araban (+% 12,1, 4 lizentzia gehiagori dagokiena), bai Gipuzkoan (+% 29,6, 8 lizentzia gehiagori dagokiena), eta Bizkaian, berriz, geldituta jarraitzen du. Birgaitze-lanen kasuan, Araban eta Bizkaian antzeko baldintzetan jaitsi da (-% 7 eta -% 7,4, hurrenez hurren), eta termino erlatiboetan zertxobait nabarmenago Gipuzkoan (-% 11,7).

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, obra berriko lizentzien kopuruak% 10,4 egin du gora, 2018ko hirugarren hiruhilekoan baino 11 lizentzia gehiago eman baitira. Gipuzkoak izan du bilakaerarik onena oinplano berriko lizentzien kopuruan, gorakada nabarmena izan baitu (+% 45,8). Bizkaian ere gora egin arren, eragina askoz txikiagoa da (+% 4,7), eta Araba da jaitsiera izan duen lurralde bakarra (-% 5,1).

Era berean, gora egin du birgaitzeko lizentzien kopuruak 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2019ko beraren artean (+% 7,3). Igoera hori Bizkaian izandako gorakadarekin (+% 29,7) baino ez dago lotuta; izan ere, Araban (-% 8,6) eta Gipuzkoan (-% 15,9) behera egin dute.

2019ko hirugarren hiruhilekoan, urtetik urterako aldaketa metatuek berriz ere datu negatiboak erakusten dituzte emandako lizentzien kopuruan. Batez ere, oinplano berriko lizentzien kopuruak behera egin du.

Urteko datu metatu horiek 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko hirugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzien gutzizkoa kontabilizatzen dute; aurreko urteko hiruhileko beretako urteko metatuarekin alderatuz gero (2017ko laugarren hiruhilekotik 2018ko hirugarren hiruhilekora), 23 lizentzia galdu dira, aurreko aldi konparagarrian baino % 0,7 gutxiago. Jaitsiera esanguratsua da oinplano berriko lizentzien kasuan,% 12,8ko jaitsiera izan baitute beherakadari dagokionez (66 lizentzia gutxiago). Aitzitik, birgaitzei dagokionez, gorakada erregistratu da (+% 1,8) (50 lizentzia gehiago). Eraisteko obra eskusiboetarako emandako lizentzien kopurua % 9,2 jaitsi da, 7 lizentzia gutxiago eman baitira..

2019ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera negatiboa da eraikuntza berriko lizentziei dagokionez, nahiz eta termino desberdinetan, EAEko lurralde guztietan. Birgaitzeko obretarako emandako lizentziei dagokionez, gora egin du Araban eta Bizkaian, eta behera Gipuzkoan

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, agerian geratzen dira hainbat dinamika.

Bizkaian ia ez da nabaritu azken urtean metatutako lizentzien kopuruan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (-% 0,1, 2 lizentzia gutxiago eman dira). Hala ere, lurralde historiko horretan jaitsi da gehien oinplano berriko lizentzien kopurua (-% 20,9, 49 lizentzia gutxiago). Birgaitzeko lizentzien kasuan, 51 lizentzia gehiago eman dira, aurreko aldian baino% 3,3 gehiago.



2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2018ko 4. hiruhil. 2019ko 3. hiruhil.		Metatua 2017ko 4. hiruhil. 2018ko 3. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.352	100,0	3.375	100,0	-23	-0,7
	Oinplano berria	448	13,4	514	15,2	-66	-12,8
	Birgaitzea	2.835	84,6	2.785	82,5	50	1,8
	Eraispena	69	2,1	76	2,3	-7	-9,2
Araba	Guztira	837	100,0	812	100,0	25	3,1
	Oinplano berria	132	15,8	146	18,0	-14	-9,6
	Birgaitzea	679	81,1	650	80,0	29	4,5
	Eraispena	26	3,1	16	2,0	10	62,5
Bizkaia	Guztira	1.795	100,0	1.797	100,0	-2	-0,1
	Oinplano berria	186	10,4	235	13,1	-49	-20,9
	Birgaitzea	1.585	88,3	1.534	85,4	51	3,3
	Eraispena	24	1,3	28	1,6	-4	-14,3
Gipuzkoa	Guztira	720	100,0	766	100,0	-46	-6,0
	Oinplano berria	130	18,1	133	17,4	-3	-2,3
	Birgaitzea	571	79,3	601	78,5	-30	-5,0
	Eraispena	19	2,6	32	4,2	-13	-40,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatuaren datuak 2019ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta Ehunekoa bertikalak)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

Araban, 25 lizentzia gehiago eman dira, eta horrek esan nahi du urtetik urterako igoera metatua % 3,1ekoa izan dela obra-lizentzia guztietan, nahiz eta lurralde horretan alde txikiak ikusten diren emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Oinplano berriko lizentziek urtetik urterako % 9,6 egin dute behera, eta birgaitzeko lizentziek, berriz, gora egin dute (+% 4,5).



Gipuzkoan, berriz, lizentzien kopuruak %6 egin du okerrera. Obra-motaren arabera, birgaitzeko lizentziek %5 egin dute behera urtetik urtera (30 lizentzia gutxiago), eta oinplano berriko lizentziek %2,3 egin dute behera, 3 lizentzia gutxiago eman baitira.

3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2019ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko lizentziek okerrera egin dute, bai bizitegi-erabilerarako lizentziek, bai bizitegi-erabilerarako ez direnek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta, hala ere, hobera egin dute bi kasuetan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

2019ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko 808 lizentzia eman ziren eraikuntza berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (635, guztizkoaren % 78,6) bizitegi-erabilerako proiektuei lotu zitzaizkien; gainerako 173 lizentziak, berriz, guztizkoaren % 21,4, bizitegi-erabilerarako ez ziren proiektuei¹.

2019ko hirugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentzien erabilera sektorialari dagokionez, ohi bezala, zerbitzuen erabilerarako lizentziak dira nagusi (lizentzia guztien % 62,4). Industriaren eta energiaren sektorerara edo lehen sektorerara bideratutakoak % 26,0 eta % 11,6 dira, hurrenez hurren.

Lizentzien hiruhilekoko bilakaerari dagokionez, 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, ikusten da galdu egin dela proiektuei lotutako emakiden kopurua, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (-% 5,8), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (-% 6,0).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruaren beherakada, 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, industriaren eta energiaren sektorearekin lotzen da nagusiki (-% 18,2), eta, bigarrenik, zerbitzuen sektorearekin (-% 3,6). Lehen sektorean, ordea, 3 lizentzia gehiago eman dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 17,6).

2018ko eta 2019ko hirugarren hiruhilekoen arteko urteko alderaketa positiboa da, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 9,7), bai bizitegi-erabilerarako ez direnei dagokienez (+% 1,2).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik kanpo geratzen dira eraipen-obretarako lizentziak, ez baitute inolako erabilerarik egin ondoren (geroago eraikiz gero, beste lizentzia-eskaera bat izapidetu beharko litzateke). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoa duten eraikinak (bizitegi-erabilera dutenak eta ez dutenak) bizitegi-erabileraren kategorian sartzen direla.



3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2019ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	808	100,0	-50	-5,8	58	7,7
Bizitegia	635	78,6	-39	-5,8	56	9,7
Bizitegiatz bestelakoa	173	21,4	-11	-6,0	2	1,2
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	20	11,6	3	17,6	4	25,0
• Industria eta energia	45	26,0	-10	-18,2	0	0,0
• Zerbitzuak	108	62,4	-4	-3,6	-2	-1,8

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2019koaren artean, lehen sektoreari lotutakoen kopuruak gora egin du (+% 25, 4 lizentziari dagokiona). Zerbitzuen sektorean beherakada txiki bat izan da (-% 1,8, 2 lizentziari dagokiona), eta industriaren eta energiaren sektorean mantendu egin da.

Urtetik urterako kopuru metatuetan, atzerakada txiki bat gertatu da EAEn emandako lizentzien kopuruan, batez ere jarduera-sektore guztietan bizitegi-erabilerarako ez direnekin lotuta.

2018ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urtetik urterako kopuruak (2017ko laugarren hiruhilekotik 2018ko hirugarrenera) 2019ko hiruhileko berekoak (2018ko laugarren hiruhilekotik 2019ko hirugarrenera) alderatzean, datuek erakusten dute bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopuruak gora egin duela (+% 2,5), eta behera egin duela bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruarekin alderatuta (-% 10,0).



4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2018ko 4. hiruhil. 2019ko 3. hiruhil.		Metatua 2017ko 4. hiruhil. 2018ko 3. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.283	100,0	3.299	100,0	-16	-0,5
Bizitegia	2.573	78,4	2.510	76,1	63	2,5
Bizitegiak bestelakoa	710	21,6	789	23,9	-79	-10,0
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	83	11,7	87	11,0	-4	-4,6
• Industria eta energia	200	28,2	220	27,9	-20	-9,1
• Zerbitzuak	427	60,1	482	61,1	-55	-11,4

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2019ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dute jarduera-sektore guztiek okerrera egin dutela. Industriaren eta energiaren sektoreak (-% 9,1), zerbitzuen sektoreak (-% 11,4) eta lehen sektoreak (-% 4,6) behera egin dute termino erlatiboetan.

5. grafikoa.. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitzeko eta birgaitzeko aurreikuspenak okerrera egin du berriro hiruhileko honetan, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

2019ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko 635 lizentzia eman ziren bizitegi-erabilerarako. Lizentzia horiek 1.112 etxebizitzarekin zerikusia zuten (aurreko hiruhilekoan baino 364 gutxiago). Etxebizitza horietatik 859 oinplano berriko jarduketekin lotuta daude (guztizkoaren % 77,2 dira), eta gainerako 253 etxebizitzak, berriz, birgaitze-prozesuekin².

Komeni da zehaztea inplikaturako oinplano berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiru hilean behin, sustapenen tamainaren arabera. Hori kontuan hartuz gero, 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean beherakada bat antzeman da EAEn aurreikusitako oinplanoa berriko etxebizitzaren kopuruan (-% 26,5). 2018ko hirugarren hiruhilekoko eta 2019ko hiruhileko bereko kopuruak alderatuz gero, ikusten da oinplano berriko etxebizitzaren aurreikuspenak ere behera egin duela (% 22,0).

Halaber, ikusten da okerrera egin duela 2019ko hirugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 17,9), eta beherakada handiagoa izan dela 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 28,9).

Arabian eta Bizkaian, neurri handiagoan, behera egin du jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak; Gipuzkoan, berriz, gorakada nabarmena izan da aztertutako bi aldietan.

2019ko hirugarren hiruhilekoan, 280 etxebizitza daude aurreikusita aurreikusitako jarduketetan **Bizkaian**, horietatik % 58,2 oin berrikoak (163 etxebizitza). Lurralde horretan, etxebizitza berrien kopuruak nabarmen egin du behera, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 60,3), bai 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 76,6). Birgaitzeko jarduketekin lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez (117 etxebizitza), haien bolumenak behera egin du 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 18,8), eta modu nabarmenagoan egin du okerrera 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 25,9).

²Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-erakinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira aintzat soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



Gipuzkoan, bestalde, 699 etxebizitzatarako jarduerak egin dira 2019ko hirugarren hiruhilekoan. Oinplano berriko 602 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta oso perspektiba positiboarekin (+% 41,3), eta 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta bikain (+% 152,9). Birgaitzeko ekintzari dagokionez: gora egin du aurreikusitako birgaitze-etxebizitzaren kopuruak (+% 15,5) 2019ko bigarren hiruhilekoan garatutako jarduketekin alderatuta, eta behera egin du aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 25,4).

Arabak, azkenik, 133 etxebizitzatarako jarduketak eskaintzen ditu, horietatik 94 oinplano berrikoak. 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du behera, bai eraikuntza berriari lotutako ekintzetan (-% 71,6), bai birgaitzeari lotutakoetan (-% 51,3). Urte arteko bilakaerari dagokionez, era berean, nabarmen egin du atzera. Etxebizitza kopuruak behera egin du bai eraikuntza berriko jarduketetan (-% 43,7) bai birgaitzekoetan (-% 42,6).


5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajeak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2019ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.112	100,0	-364	-24,7	-345	-23,7
	Oinplano berria	859	77,2	-309	-26,5	-242	-22,0
	Birgaitzea	253	22,8	-55	-17,9	-103	-28,9
Araba	Guztira	133	100,0	-278	-67,6	-102	-43,4
	Oinplano berria	94	70,7	-237	-71,6	-73	-43,7
	Birgaitzea	39	29,3	-41	-51,3	-29	-42,6
Bizkaia	Guztira	280	100,0	-275	-49,5	-574	-67,2
	Oinplano berria	163	58,2	-248	-60,3	-533	-76,6
	Birgaitzea	117	41,8	-27	-18,8	-41	-25,9
Gipuzkoa	Guztira	699	100,0	189	37,1	331	89,9
	Oinplano berria	602	86,1	176	41,3	364	152,9
	Birgaitzea	97	13,9	13	15,5	-33	-25,4

6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa



Urtetik urtera metatutako kopuruei dagokienez, bai oinplano berriaren kasuan, bai birgaitzaren kasuan, beherakada handiagoa izan da, baina horrek ez du berdin eragiten lurralde guztietan.

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhileko gorabehera handiak daudenez, komenigarria da emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea. Horrela jardunez gero, egiaztatu da 2019ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jarduera 6.385 etxebizitzatan dagoela (eraikuntza berriko 5.206 etxebizitza eta birgaitzeko 1.179 etxebizitza). Horrek esan nahi du % 11,6ko igoera izan dela (662 etxebizitza gehiago) 2018ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Igoera hori eraikuntza berriko jarduketaren gorakadarekin (+% 13,3) eta birgaitzearekin lotutako jarduketekin (% 4,3ko igoera) lotuta dago.

6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2018ko 4. hiruhil. 2019ko 3. hiruhil.		Metatua 2017ko 4. hiruhil. 2018ko 3. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	6.385	100,0	5.723	100,0	662	11,6
	Oinplano berria	5.206	81,5	4.593	80,3	613	13,3
	Birgaitzea	1.179	18,5	1.130	19,7	49	4,3
Araba	Guztira	1.005	100,0	898	100,0	107	11,9
	Oinplano berria	764	76,0	649	72,3	115	17,7
	Birgaitzea	241	24,0	249	27,7	-8	-3,2
Bizkaia	Guztira	3.103	100,0	3.180	100,0	-77	-2,4
	Oinplano berria	2.547	82,1	2.627	82,6	-80	-3,0
	Birgaitzea	556	17,9	553	17,4	3	0,5
Gipuzkoa	Guztira	2.277	100,0	1.645	100,0	632	38,4
	Oinplano berria	1.895	83,2	1.317	80,1	578	43,9
	Birgaitzea	382	16,8	328	19,9	54	16,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa



7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak
(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 3. hiruhilekoa

Lurraldeen arteko aldeak nabarmenak dira, bai etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketei dagokienez, bai birgaitzeari dagokionez. Etxebizitza berriak eraikitzeari dagokionez, Araban jarduerak hobera egin duela ikus daiteke (+% 17,7), baina bilakaera positiboena Gipuzkoan izan da, %43,9ko hazkundearekin. Bizkaian %3ko jaitsiera txiki bat dago aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatuan. Birgaitzeko jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak behera egin du Araban (-% 3,2), ia mantendu egin da Bizkaian (+% 0,5) eta % 16,5 igo da Gipuzkoan.



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hiler. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

- a. **Oin berriko obra.** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldezturik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra.** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldezturik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2019ko 3. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	14
TAULEN AURKIBIDEA	16
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	16

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa .	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa.....	11
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa .	3
2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatutako datuak 2019ko 3. hiruhilekoan	5
3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019.....	6
4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa	8
5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoa.....	11
7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz

Telefona: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak

www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus